

200 MILIOI EZ DIRA NAHIKOA

Zertan da Letrakit? Uztailaren 10ean aurkeztu zuten lehen aldiz ofizialki eta prentsa aurrean Letrakit kanpaina handia. Badira hilabeteak herriz herriko erakustetaketan antolatzen hasiak direla. Hala ere, oraindik behin baino gehiagotan entzun dezakezu zure inguruan: Zertan da Letrakit?

Euskara eta euskal kulturaren alorreko gorabeherak hurbildik segitzen saiatzen gara. Eta egia esan, ni neu erantzun egokirik gabe gertatu ohi naiz horrelako galderaren aurrean.

BEKAK. Letrakit ekintzaldiaren barruan badago eraturik alderdi "akademikoa" deitu genezakeena, "Ikerketa- eta saiakera-beke-na" alegia. Denetara, 13.250.000 pezeta.


"Deialdi honen xedea Euskaldunen Alfabetatzea 1960-1990 epealdian zer izan den ulertzen lagunduko duten ikerketa- eta saiakera-lanak sustatzea da", dio egitarauak. Gaia garrantzizkoa iruditzen oso, eta txalogarria horrelako bekek eratu izana. Ez dakit zer-nolako erantzuna izan duen deialdi horrek, baina uste dut proiektu egokiak aurkeztu eta onartuk zituztela. Lan onak aterako al dituzte! Horrelakoak ixilean egitekoak dira; eta fruituen zain geratuko gara itxaropenez eta esperantzaz.

Dena dela, deialdiaren oinarrietan agertzen den puntu batek iruzkintxo mingotsa merezi du. Honela dio: "HABEK bere Donostiako Egoitza Nagusiko liburutegi, agiritegi eta idazkaritza-zerbitzuak eskainiko dizkie ikertzaileei". Bidezko, zilegi eta beharrezko iruditzen zait hori, HABE erakunde publikoa denez. Baina gogoan dut nola, maiatzeko EHUren Leioako egoitzan egindako Euskalduntze-Alfabetatzearen I. Ihar-dunaldietan, bertako hizlari batek salatu zuen HABEK ukatu egin zizkiola hitzaldia egiteko beharrezko zituen datuak eskura izatea. Hori ez da Letrakit-en arazoa, jakina; HABEren kontua da hori.

Letrakit kanpainaren alderdi nagusia, ordea, ez da beken, ez asmoten eta ez inbertsioetan; horren ardatza Erakusketa Ibiltaria da, euskal literaturaren eta euskara idaztaren ezagutza zabalteko eta horien irudia hobetzeko helburuarekin asmatua.

Hemen ez gara sartuko kanpainaren egoitasunari buruz; ez ditut horren helburuen garrantzia zalantzan jarriko; ez dugu horretarako esleituriko 200 milioi pezetatik gorako aurrekontua balioztatuko; are gutxiago ikutuko dugu ekintzaldiaren organizazio teknikoak. Kanpainaren organizatzaileekikoa eta bertako partehartzaileekikoa, berriz, astindu beharko dugu.

Erakusketa Ibiltaria aspaldi martxan da, programatik jakin genuenez eta prentsako albiste bakanen batzuetatik ezagutu izan dugunez. Baina neure susmoa dut, kanpai-



Paulo Agirrebaltzategi

L aguntza eskatzea eta partaidetza eskaintzea gauza ezberdinak dira."



na hau ez dela gizartean sartu, eta ez duela lortu herritarrak mobilizatzea, ezta euskararen eta euskal kulturaren alorrean dabilzkanak ere. Agian Erakusketa Ibiltaria joan den herriren batzutan bertako indar herritar eta sozialen batzuk edo asko bultzatu ditu parte hartzera. Baina euskal gizartearen eta euskaldungoaren artean ez du, halako helburuei eta halako inbertsioari zegozkion oihartzunik edukirik, ezta urrundik ere. Eta ez naiz ari gure artean inoiz horrelakoetan polemikak sortu izan duen oihartzunaz; partaidetzan konkretatzen den oihartzunaz ari naiz.

Erakunde publikoen aldetiko onespene, euskarritza eta laguntza guztiekin zetoarren eta dator kanpaina. Ekintzen aurkezpen publikoak eta prentsaurrekoak ez dira falta izan; horretan ez dut uste hutsik egin dutenik organizatzaileek. Horietakoren baterako deia ere jaso izan dut nik neuk; zoritza-rez ez nuen joaterik izan. Komunikabideetako publikizitatea, bestalde, nahikoa eurrez erabili du kanpainak.

Komunikabideetan oso leku txikia izan duela uste dut kanpainak, prentsaurrekoen eta herriren bateko ekintzen albisteak aparte, eta kanpainaz beraz emandako eritzi artikuluren bat edo beste kenduta. Gizartearen eta herritarren hoztasuna nabarmentzen da komunikabideetan ere, edo alderantziz. Ez dut uste, ordea, prentsaeren edo beste inoren aldetik inolako boikot-modukorik dagoela esaterik dagoenik.

Beste zerbait garrantzizkoak egin du huts,

nerere ustez, kanpaina honen antolaketan. Horretara nator.

"Lagun-talde" gisa aurkeztu zuten beren burua kanpainaren antolatzaileek: honetarako bereziki, "ad hoc" elkarturiko taldea, nonbait. Kanpainaren finantzapena, berriz, erakunde publikoetatik etorriko zen nagusienik, edo ia osorik. Hala ere, ez zuen kanpaina instituzional gisa agertu nahi. UNESCOren eta Euskaltzaindiaren egitekoak babes morala ematea zela zirudien; agian Euskaltzaindiak bestelako egitekorik ere hartu du, beraren lehendakariaren bidez.

Alde batera utzirik "konparazioko iranak", diru-laguntza publikoak horrelako kanpainei eskaintzeko ala ukatzeko kontuan, formula bitxi xamarra iruditu izan zait "lagun-talde" berri batena, horrelako kan-

paina antolatzeko, haibeste-ko inbertsio publiko erabiliz. Jakina, denok dakigu oso lagun-talde (!) "koalifikatua" dela hori, atzean dauden erakunde publiko edo erdi-publikoengatik. Baina kanpaina instituzionalizat aitoru nahi ez izanak, anbiguotasun ilun ho-

rretan utzi du kanpainaren erakuntza osoa.

Aldi berean, Erakusketa Ibiltaria-n "ikuslearekiko harreman aktiboa" eratzeko asmoa aitortzen zuen kanpaiaren proiektuak. Eta hori zehaztera zetoirela dirudi beherago honako hau: "... horretarako talde guztien laguntza lortu nahi dugu: kultur eta kirol taldeak, enpresa-sektoreak, merkataria, Toki-administrazioa, ..."

LAGUNTZA. Zertan dاتا harreman aktiboa: aurretik eta goitik "lagun-talde" batek, diru-inbertsio handiz, antolaturiko ekintzetarako "laguntza" militantea ematean? Hau diot, bereziki, Euskal Herriko eta herrietako kultur talde, elkarte eta erakunde zibikoiei buruz.

Ikusita dago Herri honetan, euskalgintza-ko eta euskal kulturgintzako langileak, taldeak eta elkarteak prest egin ohi direla beren laguntza militante zabala eta beroa eskaintzeko antzeko kanpainetan. Baina militantearen laguntzak baldintza bat eskatu ohi du: Partaidetza! Kanpainaren diseinua egitean, horren antolaketan eta, baita... horren finantzapenean ere. Laguntza eskatzea eta partaidetza eskaintzea, ordea, gauza ezberdinak dira.

Nere ustez, beste aukera berri bat galdu da, euskalgintzan eta euskal kulturgintzan behar-beharrezkoa den erakunde publikoaren eta indar herritarren arteko artikulazio egokia bideratzeko, bereziki horrelako kanpaina "herritarrei" begira.

Eta jakina, 200.000.000 ez dira nahikoa herritarren laguntza militantea erosteko.

* Paulo Agirrebaltzategi, idazlea, EKB-ren lehendakaria da.